

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 431/2021 Erabakia, uztailaren 13koa. Onestea Otoabarrengo Administrazio Batzarreko kide kudeatzailea izendatzea

Arabako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeak Arabako Foru Aldundiari jakinarazi dio hutsik dagoela kargu bat Otoabarrengo Administrazio Batzarrean, aipatutako administrazio batzarreko 2. kideak uko egin diolako karguari. Hortaz, aldundiari eskatzen zaio kargua betetzeko izendapena egitea, ez baitago beste hautagairik.

Horiek horrela, bat etorri Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuetako Errejidore eta Kideak Hautatzeko Foru Arauak 19. eta 21. artikuluetan xedatutakoarekin, eta Arabako Administrazio Batzarretako batzorde eta kide kudeatzaileak izendatzeari, eratzeari eta lanean aritzeari buruzko arauak ezarri zituen Arabako Foru Aldundiaren martxoaren 26ko 829/1985 Erabakiak bigarren apartatuan xedatutakoaren arabera, kide kudeatzailea izendatu behar da, administrazio batzar horretan dagoen kargu hutsa betetzeko, hauteskundeak egin arte.

Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuak sail honi ematen dio administrazio batzarretako hauteskunde araubidearen jarraipena egiteko ahalmena, beste eginkizun batzuen artean. Horren ondorioz, sail honi dagokio kargu horiek beteko dituzten pertsonak proposatzea, Foru Aldundiak izenda ditzan.

Horregatik guztiagatik, Lurralde Orekaren Saileko diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. José Ignacio Ortiz De Zarate Martínez De Osaba izendatzea Otoabarrengo Administrazio Batzarreko kide kudeatzaile.

Bigarrena. Martxoaren 26ko 829/1985 Erabakiak bigarren apartatuan xedatutakoarekin bat etorri, aipatutako kide kudeatzailea errejidore-lehendakariak horretarako beren-beregi deituko duen bilkura berezi batean jabetuko da karguaz. Erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo zazpi egun baldiodunen barruan egin behar da bilkura hori.

Bilkura egin eta hurrengo hiru egunen barruan bidaliko zaio Arabako Foru Aldundi honi bilkura horretako aktaren ziurtagiria.

Hirugarrena. Lurralde Orekaren Sailak argitara dezala erabaki hau ALHAOn.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 13a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua

IRMA BASTERRA UGARRIZA

Lurralde Orekaren zuzendaria

JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA